



Arartekoaren 2024R-3465-23 Ebazpena, 2024ko abenduaren 13koa. Honen bidez, Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailari gomendatzen zaio beharrezko neurriak har ditzala Ertzaintzak euskaraz arretea ematea bermatzeko.

Aurrekariak

1.- 2023ko azaroaren 11n, Donostiako bi herritarrek kexa bat aurkeztu zuten Arartekoan. Idazkian, AA inizialak zituen emakume batek eta MR inizialak zituen gizon batek urte bereko urriaren 18an, 21:00etatik 22:00etara, Donostiako auzo batean gertatutakoaren ondorioz Ertzaintzak emandako tratua salatu zuten. Era berean, Arartekoari gertakariak salatzen zituen gutun bat igorri zioten, zeina Lehendakariari, Segurtasuneko sailburuari eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuari ere bidali baitzioten, baita MRk grabatutako 16 minutuko audio bat ere.

Hona hemen kexagileek gertakariari buruz esandakoa, Arartekoari bidalitako dokumentazioa oinarri hartuta (jatorriz euskaraz):

AA eta MR bi lagunekin batera taberna bateko terrazan zeuden, Ertzain, udaltzain eta anbulantzia kotxeak pasa zirenean aurreko kaletik.

Ertzain kotxeetako bat itzultzean, euren aurrean geratu eta MRren autoaren (terraza aurrean gaizki aparkatuta zegoena) matrikulei argazkiak ateratzen hasi zen ertzain bat (aurrerantzean 1.ertzaina).

AA 1. ertzainarena joan zen eta esan zion iruditzen zitzaizola bazirela auzoan beste egoera batzuk bizilagunak gehiago kaltetzen zutenak, gaizki aparkatuta zegoen kotxe hori baino, eta aipatu zion, adibidez handik gertu zegoen lokala okupatuta zegoela, eta bizikidetzara arazoak sortu zituela (10 minutu lehenago lizkarra eta oihuak izan ziren).

1. ertzainak esan zion berari gazteleraz hitz egiteko. AAK azaldu zion une horretan bera lanean ari zenez eta funtzionarioa zenez, berak herritarren aurrean ez zuela hizkuntza eskubiderik. Alderantziz, bera zela (hau da, AAK) zituela hizkuntza eskubideak eta berak euskaraz artatua izan nahi zuela. Ertzainak gaizki erantzun zion "que me dejes en paz" batekin. Egoera horren aurrean AAK ertzain zenbakia emateko eskatu zion, eta ertzainak ez ziola emango erantzun zion eta kotxean sartu zen joateko asmoz kotxea martxan jarritz. Autoan 2. ertzaina zegoen. Ertzaina identifikatzeko modua edukitzeko, AAK argazkia atera zion autoaren matrikulari.

AA 1. ertzainarekin hitz egiten ari zen bitartean, MRk 2. ertzainari esan zion aparkatuta zegoen autoa berea zela. 2. ertzainak esan zion gaizki aparkatuta zegoela, isuna jasoko zuela horregatik eta autoa bertatik kentzeko. MR autoa aparkatzera joan zen.





AAk Donostiko Ertzain-etxera deitu zuen (21:15 h.) autoaren matrikula esanda, bertako ertzainari gertatutakoa kontatzeko asmoz (ez zuela euskaraz artatu nahi izan eta ez ziola ertzain zenbakia eman). Deia erantzun zuen ertzainak gazteleraz erantzun zuenez, AAk euskaraz artatua izan nahi zuela esan zion. Hasieratik modu txarrean hitz egin zion telefonoari erantzun zion ertzainak. Berak euskaraz ez zuela artatuko esan zion. AAk erantzun zion orduan beste norbaitekin pasatzeko. Bertan inork ez zekiela euskaraz erantzun zion. AAk ertzain horri azaldu zion berak eskubidea zuela euskaraz artatua izateko. Ertzainak erantzun zion ea hori jatetxe bat zela uste zuen eta telefonoa eskegi zion erantzuteko aukerarik eman gabe.

Autoan zeuden ertzainak ohartu zirenean AAk polizia autoko matrikulari atera ziola argazkia eta telefonoz hitz egiten ari zela, autoa gelditu eta autotik irten ziren. AA bizkarrez zegoen terrazan eserita. AAk ikusi zuenean 1. ertzaina ondoan zuela, eskuarekin itxoiteko keinua egin zion, Donostiko Ertzain-etxeko ertzainarekin hitz egiten ari baitzen telefonoz.

Telefonoa eskegi zuenean, 1. ertzainak, gazteleraz, AAri identifikatzeko eskatu zion. 1. ertzaina zutik zegoen eta AA terrazan zegoen lekuan eserita. AAk euskaraz galdetu zion ea zein delitu zantzu zegoen berari identifikatzeko eskatzeko, berak eskatu zuen bakarra euskaraz artatua izan nahi zuela zela. 2. ertzaina beste ertzainaren alboan zegoen baina ez zuen hitz egin. 1. ertzainak esan zion berari adierazi zionez lokala okupatua zegoela eta horrek arazo bat suposatzen zuela, identifikatu egin behar zela. AAk azaldu zion ertzainari delitu zantzurik ez bazegoen berari ezin ziola identifikatzeko eskatu, eta ez zuela ulertzen zergatik ari zen hori egiten. Momentu batean ertzainak galdetu zion *"ah, ¿entonces no te quieres identificar? Vale, primera vez que no te quieres identificar"*. AAk esan zion berak ez zuela esan ez zuenik identifikatu nahi, jakin nahi zuela ea zein zen delitu zantzia.

Une horretan MR autoa aparkatsetik itzuli zen eta aurretik eserita zegoen lekuan eseri zen (AAren alboan), baina, egoera ikusita, zutik jarri eta elkarrizketa grabatzen hasi zen. Orduan 2. ertzainak esan zion ezin zuela grabatu. MRek azaldu zion hori ez zela horrela, berak elkarrizketa hori grabatzeko eskubidea zuela, elkarrizketaren parte baitzen. 2. ertzainak erantzun zion orduan berak MR identifikatzeko eskubidea zuela. MRek orduan galdetu zion ea zein delitu zantzugatik ari zen eskatzen identifikatzeko.

Une horretan 2. ertzaina MRrengana hurbildu eta bi elkarrizketak banandu egin ziren, 1. ertzaina AArekin, eta 2. ertzaina, MRrekin.

AAak laguntza eskatzeko asmoz Bilboko Ertzaintza komisaldegira deitu zuen. Telefonoa erantzun zuen ertzainak euskaraz artatu zuen eta AAk azaldu zion nola bere lankide bat identifikatzeko eskatzen ari zitzaien, eta galdetu zion ere, ea bere burua identifikatzeko beharra zuen, berak egin zuen bakarra euskaraz artatua izan nahi zuela esatea izan zela.





AA hitz egiten ari zela Ertzaintzako furgoneta bat iritxi zen eta 5 ertzain jaitsi ziren bertatik. AAK Bilboko ertzainari hori kontatu zion eta esan zion ez zuela uste horrek egoera konponduko zuenik eta berriz ere eskatu zion mesedez norbaiti deitzeko egoera zentzugabe horrekin amaitzeko. Bilboko ertzainak esan zion deituko zuela eta berriz ere deituko ziola.

Une horretan, etorri berri ziren ertzainek MReri gorputz esplorazioa egin zioten eta sakeletik kartera eta NANA kendu zizkioten.

Bilboko ertzainak 21:31 orduan AAri deitu zion eta esan zion Donostiako ertzainek aipatu ziotenaren arabera ertzain gehiago bidali zituztela euskaraz zekitelako eta eurak artatuko zutela euskaraz. AAK erantzun zion hori ez zela horrela izan, ertzainen artean inor ez zela beregana gerturatu hitz egiteko, eta, izatez, une horretan bertan MR hartu eta etxearen beste aldera eraman zutela katxeatzeko (gainontzeko ertzainak "harresi" moduan jarri ziren eta gainontzekoei gerturatzea debekatu zieten; ezin zuten ikusi zer ari zen gertatzen). Bilboko ertzainak esan zion lasai egoteko, ohiko prozedura dela identifikatzeko eskatzea, ez dela ezer gertatzen horregatik, kontatu zionaren arabera deliturik ez zuela egin eta identifikatzeko lasai eta dena amaituko zela horrekin.

Egoera ikusita, tabernan zeuden beste 4 pertsona gerturatu ziren eta 3. ertzainarekin (furgonetan etorritako bost ertzainetako batekin) euskaraz hitz egiten hasi ziren.

AAk Bilboko ertzainarekin elkarrizketa bukatu eta telefonoa eskegi zuenean, 2. ertzainak (elkarrizketa osoa entzun zuenak, behintzat AAK esandakoa) identifikatzeko eskatu zion, euskaraz. AAK NANA eman zion. 2. ertzaina hasieratik bertan zegoen arren eta AAK hasieratik birritan euskaraz artatua izan nahi zuela garbi adierazi zuen arren, ez zion euskaraz hitz egin eta 1. ertzainak ere ez zion aukera hori adierazi AAri, azken honek esaten zion bakarria "*Háblame en español*" izanda.

AAk entzun zuen nola 3. ertzainak euskaraz azaltzen zien terrazan zeuden eta hurbildu ziren hiru pertsonen trafikoko kontu batengatik identifikatzeko eskatu zitzaizola herritar bati eta ukatu zelako zeudela beraiek han. AAK hori entzunda, ertzain horrengana gerturatu zen eta hori ez zela horrela azaldu zion. Trafiko gaia 2. ertzainarekin konpondu zuela MRek eta identifikatzeko eskatu gabe autoa beste leku batean aparkatzeko eskatuta amaitu zuela gaia. Identifikatzeko eskatu zitzaion lehen pertsona bera zela (AA), eta berak ez zuela deliturik egin, egin zuen bakarria euskaraz artatua izatea eskatzea izan zela. 3. ertzaina azaltzen hasi zitzaion eurek, ertzain lanean ari direnean ere, gazteleraz hitz egiteko eskubidea dutela. Orduan AAK hizkuntza ofizialei buruzko araudia azaldu zion.

Hitz egiten ari zirela, 1. ertzaina agertu zen AAren NANA eskutan zuela, eta elkarrizketa erdian sartuta, azkar batean eta gazteleraz AAri bere izen-





abizenak eta NAN zenbakia esan zizkion (inguruko herritarrek entzuteko moduan) eta jakinarazi zion etxean salaketa-proposamen bat jasoko zuela identifikatzea ukatzeagatik.

Hori esaten ari zela, AA ertzainaren hitz jarioa mozten saiatu zen, gazteleraz esaten ari zitzaion hori euskaraz artatu zezakeen 3. ertzainak esan ziezaion eskatuz, hasieratik garbi utzia baitzuen euskaraz artatua izan nahi zuela eta 3. ertzainak euskaraz egin zezakeela. 3. ertzainak erantzun zion 1. ertzaina ez zegoela berekin hitz egiten, AAekin baizik. AAk galdetu zion ea euskarazko arreta ukatzen ari zitzaion, eta baietz erantzun zion. Orduan AAk eskatu zion, erantzuna hori izaki, bere ertzain zenbakia emateko.

Zenbakia erakutsi zion (gainean zeukan estalkia kenduta) eta AAk mugikorra atera zuen apuntatzeko. *"Argazkirik ez atera!"* esan zion, eta AAk argitu zion zenbakiari baino ez ziola atera argazkia. 3. ertzainak orduan ozen esan zuen bere ertzain zenbakia (azken hau MRk grabatutako audioan entzun ahal dela).

Ondoren, ertzain guztiek alde egin zuen AAk ez zuelarik izan erreakzionatzeko denborarik. Joan eta berehala AAk berriz ere Bilboko ertzainari deitu zion (21:40 h,) eta esan zion berak esan zion moduan NANA erakutsi ziola eta emaitza izan zela isun bat jasoko zuela. Hori esan eta berehala AA negarrez hasi zen. Bilboko ertzaina AA lasaitzen saiatu zen. Azaldu zion jasoko zuena isun-proposamen bat izango zela, alegatzeko aukera izango zuela.

Bilboko ertzainak esan zion jasotako tratuarekin ados ez bazegoen kexa jar zezakeela isuna jarri aurretik eta horrela bere bertsioa entzungo zela ere. Ertzainak barkamena eskatu zion jasotako tratuagatik. AAk eskerrak eman zizkion Bilboko ertzainari emandako tratuagatik.

Erreklamatzailleek amaitzen dute ondorengo aipatuz: AAk ertzain zenbakia eskatu zion ertzain guztiek ez zeukatela zenbakia agerian (estalita zutela) eta zenbakia erakutsi zioten 3 kasuetan, gainean zuten estalki modukoa (ez dakite zehatz zer zen) kendu behar izan zutela zenbakia ikusi ahal izateko.

Kexagileek adierazitakoaren arabera deskribatu ditugun gertakarien ondoren, hurrengo asteetan MRk zehapen-proposamen bat jaso zuen, gertakarien egunean ibilgailua gaizki aparkatzeagatik, eta berehala ordaindu zuen.

2.- Kexagileek esandakoa ikusita, 2023ko abenduaren 4an, Arartekoak informazio-eskaera bat igorri zion Segurtasun Sailari, salatutako egitateak argitzeko. 2023ko abenduaren 28an, Arartekoak Segurtasun Sailaren erantzuna jaso zuen. Horren arabera, Arartekoan jarritako kexaren eta kexagileek bidalitako gutunen ondorioz, Ertzaintzan bertan kexa-espeditatea ireki zen. Gainera, sailak Arartekoari jakinarazi zion, salatutako gertakarien ondorioz –bai Ekinbide¹ ekimenean, bai Arartekoaren

¹ Segurtasun publikoaren sistema hobetzeko herritarren ekimenean bulegoa, Ekinbide, Euskadiko segurtasun publikoaren sistema eta herritarrei emandako zerbitzuak hobetzeko kexak, iruzkinak eta iradokizunak jaso, aztertu eta erantzuteaz arduratzen da, zerbitzuotan kalitatea eta konfiantza hobetzeko, horrenbestez.





espedienteen-, Ertzaintzaren Barne Arazoetarako Burutzak (aurrerantzean, BAB) ikerketa bat hasi zuela, eta ikerketa horrek denbora beharko zuela ikerketa-informazio guztia biltzeko eta gertatutakoa argitzeko ikerketa-eginbideak egiteko, horrela kexa-idazkian planteatutako gai guztiei erantzun egokia emateko. Halaber, jakinarazi zion ikerketa amaitu ondoren emaitzaren berri emango ziola.

3.- 2024ko otsailaren 12an, AAK Segurtasuna Koordinatzeko zuzendariaren ebazpen bat igorri zion Arartekoari. Ebazpen horren bidez, zehapen-espeditentea irekitzea erabaki zen, Herritarren Segurtasuna Babesteko 2015eko martxoaren 30eko 4/2015 Lege Organikoan (aurrerantzean, HSBLO) xedatutako arau-hauste bat ustez egiteagatik izan zezakeen erantzukizuna zehazteko, bere burua identifikatzeari uko egiteagatik. Ebazpenak honako hau dio:

“2023/10/18an, 21:25 aldera, Donostiako YY kaleko XX zenbakian, bidesegurtasuneko polizia-jarduera batean, AAK, desafioka eta oihuka, Ertzaintzako ertzainei esan zion “ocupaos de lo importante y dejas de coches mal aparcados”. Ertzainek identifikatzeko agindu zioten, baina hark uko egin zion lau aldiz identifikatzeari, eta “no me da la gana” esan zion. Zigorra ezartzeko proposatuko ziotela esan zioten, eta hark “me da igual” esan zion.”

Ebazpenak 602 euroko zehapen-proposamena egiten dio AAri, HSBLOren 36.6 artikularen arau-hauste larriagatik, bere burua identifikatzeari uko egiteagatik; hala ere, ez dira ertzainek AAri identifikatzeko eskatzeko arrazoiak aipatzen, bakarrik esaten da gertakariak *bidesegurtasuneko polizia-jarduera batean gertatu zirela*.

Zehapen-proposamen hori ikusita, kexagileak alegazio-idazki bat aurkeztu zuen epe barruan, zehapen-proposamena eta bizitakoaren kontakizuna erkatze aldera (kontakizuna, funtsean, bat dator lehen azaldutakoarekin). MRk grabatutako audioa erantsi zuen froga gisa. Era berean, bere kontakizuna egiazkoa zela frogatzeko, Bilboko eta Donostiako ertzain-etxeetara egindako deiak aztertzeko eskatu zuen. Ebazpen hau idatzi dugun egunean, zehapen hori ez da irmotzat jo eta oraindik administrazio-bidean jarraitzen du.

4.- 2024ko apirilaren 30ean, Arartekoak bigarren informazio-eskaera bat igorri zion Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailari, AAren zehapen-proposamena kontuan hartuta –ustez HSBLOn xedatutako arau-hauste bat egiteagatik, bere burua identifikatzeari uko egiteagatik– eta sailak emandako lehen erantzunetik lau hilabete baino gehiago igaro izanagatik –erantzun horretan adierazi zuen Barne Arazoek gertakariak ikertu ondoren erantzungo zitzaiela Arartekoari eta kexagileei (horretarako irekitako Ekinbideren espeditentearen bidez)–.

Bigarren informazio-eskaera horretan, Arartekoak informazioa eskatu zuen honako hauen inguruan: AAri HSBLO hausteagatik irekitako zehapen-espeditentearen izapidetze-egoeraren edo kexagileen aurka izapidetzen ari ziren bestelako espeditenteen inguruan, Ekinbideko espeditentearen inguruan, baita Barne Arazoetako (BAB) espeditentearen arabera euskaraz ez artatzeari buruzko gertakari buruzko azalpen bat ere.





Bestalde, Arartekoak Ertzaintzaren polizia-etxeetan eta patruiletan euskaraz arreta emateko protokoloak eskatu zituen, baita gertakarietan parte hartu zuten ertzainen hizkuntza-eskakizunak eta destino gisa ezarria zuten ertzain-etxeko langile guztien hizkuntza-eskakizunak ere. Azkenik, eskatu zuen azken urteetan ertzain-etxe horretako ertzainek arreta bi hizkuntza ofizialetan emateari buruzko prestakuntzarik jaso ote zuten eta arreta hori zertan zetzan argitzeko.

5.- 2024ko ekainaren 24an, Arartekoak Segurtasun Sailaren txosten bat jaso zuen, Ertzaintzako buruak sinatua. Txosten horretan, Arartekoak planteatutako gai guztiak erantzun ziren. Barne Arazoetarako Burutzak (BAB) egindako barne-ikerketaren kopia bat ere jaso zen, egindako jarduketa guztiak jasotzen dituen. Ekinbideren espedientea eta Araubide Juridiko Publikoaren Arloko arduradunak emandako informazioa ere erantsi ziren, HSBLO hausteagatik AAren zehapen-espedienteari eta MRren aurka jarritako salaketaren egoerari dagokienez.

Bestalde, honako hauek ere erantsi ziren: Ertzaintzan euskararen erabilera normalizatzeari buruzko jarraibide-proposamen bat; gertakarietan parte hartu zuten ertzainen eta Donostiako ertzain-etxeko langile guztien hizkuntza-eskakizunak; eta, ertzain-etxe horretako ertzainek azken urteetan bi hizkuntza ofizialetan arreta emateari buruz jaso duten prestakuntzari dagokionez, Elhuyar enpresaren txostena erantsi zen, euskararen erabilera normalizatzeko planaren barruan egindako jarduketei buruzkoa, eta, bestalde, ELEBI-Ertzaintza programari buruzko informazioa, parte hartu zuten ikasleen zerrendarekin batera.

Arartekoari emandako erantzunean, Segurtasun Sailak BABek egindako ikerketaren ondorioak berretsi egiten ditu, eta parte hartu zuten ertzainen bertsioa onartzen du. Izan ere, polizia emandako informazioaren arabera, gertakariak Donostiako ertzain-etxeko herritarren babeserako polizia-baliabide bateko kide uniformedunek gaizki aparkatuta zegoen ibilgailu bat ikusi zutelako sortu ziren. Ibilgailu horrek, ertzainen arabera, beste ibilgailu batzuen zirkulazioa zailtzen zuen, eta, gutxi gorabehera, bi ordu zeramatzan toki berean aparkatuta. Erantzun-txostenaren arabera, ertzainek Aginte eta Kontrol Zentroari jakinarazi zizkieten ibilgailuaren datuak. Une horretan, emakume bat hurbildu zen, AA, eta ertzainetako bati liskar egin zion, eta gaizki esan zion hori ez zela bere lana, kontu garrantzitsuagoz arduratzeko, hala nola gertuko lokal batean zegoen arazoaz, antza denez okupatuta baitzegoen. Jarraian, eta betiere ertzain-etxetik jasotako informazioaren arabera, AAK euskaraz hitz egin zion beste ertzainari, eta hark, euskaraz ez zekienez, gaztelaniaz erantzun zion. Esan zion lankideak euskaraz hitz egin ziezaiokeela, hala nahi izanez gero, baina ezetz esan zion, exijituz bera izan zedila euskaraz hitz egiten ziona, eta hau esan zuten: *"deja de hacer el tonto y atiéndeme de una puta vez"*. Ertzainak errespetu-faltak jaso zituenez, dokumentazioa eskatu zion AAri, eta haxe adierazi zuen: *"no me da la gana hasta que me lo digas en euskera"*. Horren aurrean, ertzainak erantzun zion lankideak euskaraz eska ziezaiokeela, eta hark adierazi zuen: *"lo he entendido, pero hasta que no me lo digas tú en euskera no te voy a obedecer"*.

Eskaera hori behin baino gehiagotan egin zuten, baina AAK uneoro uko egin zion bere burua identifikatzeari. Orduan, gizon bat, MR inzialekin identifikatua eta





ibilgailuaren gidaria, poliziaren jarduketa telefono mugikorrarekin grabatzen hasi zen, eta ertzainetako batek (bestea AAekin zegoen) identifikatzeko eskatu zion, baina hark uko egin zion bere burua identifikatzeari, eta eskatu zion une oro euskaraz azaltzeko identifikatzeko beharraren arrazoiak. Ertzainek diotenez, gizonak zera esan zuen: *"no me da la gana, paso de darte nada"*. Era berean, ohartarazi zioten irudiak gaizki erabiltzen bazituen HSBLO legea urratzeagatik zehapena jaso zezakeela. Azalpenak zehatz-mehatz euskaraz emateko, C1 hizkuntza-mailako ertzain bat bertaratzeko eskatu zen, eta minutu batzuk geroago iritsi zen. Zehazki, 2023ko urriaren 18ko 21:23an irekitako polizia-jarduketan jasota dago 21:32an agertu zela C1 hizkuntza-mailako ertzainak parte zen baliabidea, eta euskaraz artatu zituela kexagileak.

Gertakari horiengatik, ertzainek bi pertsonak HSBLO urratzeagatik zehapena jasotzea proposatu zuten; zehazki, desobedientzia arin batengatik, autoritatearen aurrean identifikatzeari uko egiteagatik.

Donostiako eta Bilboko ertzain-etxeetara AAk egindako bi deiei dagokienez, txostenak dio BABek deiak aztertu eta transkribatu dituela, eta ondorioztatu du Bilboko ertzainak emandako tratua zuzena eta euskaraz izan zela. Donostiako ertzain-etxeko ertzainaren jarduketari dagokionez, BABek telefono bidezko elkarrizketa aztertu ondoren Arartekoari jakinarazi dio ondorioztatu daitekeela ertzainak ez ziola behar bezala erantzun deiar; izan ere, komunikatzaileari begirunerik gabeko iruzkinak egiteaz gain, ez zuen inolako ahaleginik egin ertzain-etxean euskaraz arreta eman ziezaiokeen pertsona bat aurkitzeko, kexagileak hizkuntza-eskubideak baliatzeko, eta, gainera, deia moztu zuen. Jarrera hori ikusita, BABek, 2024ko maiatzaren 8an, ertzain horri diziplina-espediente bat irekitzeko eskatu zion Segurtasuneko sailburuordeari, Euskal Herriko Polizia Kidegoen Diziplinako Araudia onartzen duen maiatzaren 3ko 170/1994 Dekretuan ezarritako hutsegite larri bat ustez egiteagatik.

Txostenak, era berean, **kexagileek emandako MRren audioa** aztertzen du, eta ondorioztatzen du ertzainek tratua zuzena eman zietela, eta kexagileek eskatuta identifikatu zirela, beren identifikazio-zenbakia ozenki adierazita.

6.- BABek egindako eta Ertzaintzako buruak eta Segurtasun Sailak Arartekoari emandako erantzunean bere gain hartutako ikerketaren ondorioak honako hauek dira:

- **Identifikatzeko legitimitaterik ezari** dagokionez, sailak **hainbat arrazoi** ikusten ditu bi pertsona horiek identifikatzeko.
 - Lehenik eta behin, ertzainak, beren eginkizunak betetz, ibilgailu bat gaizki aparkatuta egoteagatik zegokion jarduketa egiten hasi ziren, eta horrek gaitasuna ematen zien gidaria identifikatzeko kudeaketak egiteko, trafiko-araudian eta HSBLOren 16.1.a) artikuluan ezarritakoaren babesean, aukera hori ezartzen baitu: *"a) Cuando existan indicios de que han podido participar en la comisión de una infracción"*.



- Bigarrenik, **AAk izandako errespetu-falta**. Izan ere, bera izan zen aurrena ertzainei adierazitako hitzak esaten, eta horrek HSBLOren 37.4 artikulua urratzea dakar, arau-hauste arintzat tipifikatzen baitu: "*Las faltas de respeto y consideración cuyo destinatario sea un miembro de las Fuerzas y Cuerpos de Seguridad en el ejercicio de sus funciones de protección de la seguridad, cuando estas conductas no sean constitutivas de infracción penal.*" Horrek AA identifikatzeko gaitasuna ematen zien ertzainei.
- Hirugarrenik, **AAk argazkiak atera izana polizia-ibilgailuari eta MRk ertzainen jarduketa grabatu izana**. Sailak adierazi du HSBLOren 36.23 artikulua aplika daitekeela, zeinak arau-hauste larritzat tipifikatzen baitu zera: "*El uso no autorizado de imágenes o datos personales o profesionales de autoridades o miembros de las Fuerzas y Cuerpos de Seguridad que pueda poner en peligro la seguridad personal o familiar de los ertzains, de las instalaciones protegidas o en riesgo el éxito de una operación, con respecto al derecho fundamental a la información*". Sailaren arabera, lege-agindu horrek ertzainei gaitasuna ematen zien irudi horiek lortu zituen pertsona identifikatzeko.
- Azkenik, sailak adierazi du **AAk ertzainei esan ziela legez kanpo okupatuta zegoen hurbileko lokal bat zegoela**, eta, ertzainak iritsi baino hamar minutu lehenago, lokalean zeuden pertsonak bizilagun batzuekin istilu bat izan zutela. Kasu horretan, ertzainaren jarduketa bermatzen du ustezko legez kontrako gertaera penal bat eta partikularren arteko ustezko eztabaida bat salatu duen pertsonaren identitatea ezagutzeko beharrak, egitateetatik erantzukizun penalik edo bestelakorik erator daitekeen jakiteko, HSBLOren 16.1 artikulua ezartzen duenaren arabera: "*En el cumplimiento de sus funciones de indagación y prevención delictiva, así como para la sanción de infracciones penales y administrativas, los ertzains de las Fuerzas y Cuerpos de Seguridad podrán requerir la identificación de las personas en los siguientes supuestos: a)... b) Cuando, en atención a las circunstancias concurrentes, se considere razonablemente necesario que acrediten su identidad para prevenir la Comision de un delito*".
- **Parte hartu zuten ertzainek ez identifikatzeari** dagokionez (Ekinbiden eta Arartekoan jarritako kexan, kexagileek zera azaldu zuten: "Mencionar que, a todos los ertzains a los que se les solicito su identificación tenían sus números tapados, ya que las tres veces que mostraron su número tuvieron que quitarse -no sé qué es lo que era- lo que llevaban puesto encima". Sailak adierazi du jarritako kexaren testuan bertan egiaztatu dela ertzainen bularreko plakei dagozkien zenbaki alfanumerikoak adierazten direla (XXX, YYY, ZZZ), bai eta froga gisa aurkeztutako bideo-grabazioan bertan ere, salatzaileari parte hartu zuten ertzainetako bati dagokion kode alfanumerikoa ozenki esaten entzuten baitzaio: "*ZZZ, vale*". Beraz, salatzaileek ertzainak identifikatu ahal izan zituzten, eta, hortaz, sailak ondorioztatu du ertzain horiek ez ziotela uko egin informazio hori emateari.



- Esku hartu zuten **ertzainek emandako tratuari** dagokionez, sailak adierazi du ez dagoela zantzurik baieztatzeko ertzain horiek AAri edo MRri errespetu edo begirunerik gabeko tratua eman zietenik; hori agerikoa da kexagileek aurkeztutako bideo-grabazioan bertan.
- Azkenik, gertakarietan parte hartu zuten ertzainek **kexagileen hizkuntza-eskubideak urratu ahal izanari** dagokionez, sailak adierazi du bat datorrela esatean herritarrek, une eta leku guztietan eta administrazioarekin dituzten harremanetan, aukeratzen duten hizkuntzan artatuak izateko eskubidea dutela, eta hori Segurtasun Sailak eta Ertzaintzak berak onartzen dutela, Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legean eta Ertzaintzaren Kode Deontologikoan ezarritakoa betez. Bestalde, sailak adierazi du horretarako behar diren ahaleginak egiten ari badira ere – Arartekoari bidalitako dokumentaziotik ondoriozta daitekeen bezala–, egun Ertzaintzako ertzain guztiek ez dutela euskaraz arreta emateko gaitasun nahikorik; hala ere, horrek ez du eragozten, herritar batek hala eskatzen badu eta betiere egoerak ahalbidetzen badu, arreta hori errazteko eta hizkuntza-eskubideak baliatzea erabat bermatzeko ahaleginak egitea. Sailak azaldu du gertakarien egunean esku hartu zuten lehenengo ertzainak ez zeudela guztiz gaituta behar bezalako arreta emateko euskaraz –gaineratu du badirudiela ertzainetako batek euskaraz hitz egiten zekiela, baina ez zuela behar adinako maila identifikazioaren arazoak azaltzeko, esaterako–. Hala eta guztiz ere, sailak adierazi du eztabaidaezina dela, eta egiaztatuta geratu dela, pertsona horiei euskaraz arreta emateko behar adinako maila zuten ertzainak bertaratzeko eskatu zela –arestian jarduketa 21:23an ireki zela eta C1 mailako ertzaina 21:32an bertaratu zela aipatu da–; beraz, esku hartu zuten ertzainek ahaleginak egin zituzten pertsona horiei beren eskubideak bermatzeko, telefono-deia hartu zuen Donostiako ertzain-etxeko ertzainak ez bezala. Sailak emandako erantzunean adierazi duenez, egindako ikerketaren esparruan, esku hartu zuten lehenengo bi ertzainetako batek ez du euskarazko hizkuntza-eskakizunik, eta besteak 1. HE dauka (B2 mailaren baliokidea). Aitzitik, herritarrak euskaraz artatzera joan zen ertzainak 2. HE du (C1 mailaren baliokidea). Era berean, telefonoa hartu zuen Donostiako ertzain-etxeko ertzainak ez du hizkuntza-eskakizunik.
- Aurrekoarekin bat etorritik, sailaren **AZKEN ONDORIOA** da ez datorrela bat Arartekoan aurkeztutako kexa-idazkian adierazitakoarekin; izan ere, kexagileen ustez, euskaraz artatuak izateko eskatzeak gatazka larriagotzea ekarri zuen, eta HSBLOn ezarritakoaren arabera beren buruak identifikatzeko eskatzeko arrazoia izan zen. Sailak adierazi duenez, kexagileak identifikatzeko zergatiak arrazoitu ditu erantzunean, eta, legez euskaraz artatuak izateko oinarrizko eskubidea izan arren, ezin da polizia-lana oztopatu, ezta, hizkuntza-eskubide baten aldarrikapenaren babesean, erantzukizun penal edo administratiboak saihestu ere, are gehiago jarduketan parte hartu zutenek jakinda (bai ertzainek, bai salatzaileek), azkenean gertatu zen bezala,





hizkuntza-eskubide horiek bermatuko zirela beste ertzain batek esku hartzearen bidez.

- Sailak egindako barne-ikerketaren bidez **ondorioztatu du** –non alde guztien adierazpenak erkatu eta kontrastatu diren, eta hainbat froga-elementu aztertu diren, baita aurkeztutako audio-grabazioa ere– **AAk eta MRk, jarduketaren hasieratik, jarrera desafiatzaile eta desobeditzailea izan zutela** beren eginkizunak betetzen ari ziren eta Herritarren Segurtasunaren ustezko arau-hausteak ekiditeko jarduten ari ziren ertzain batzuekiko. Sailak gaineratu du egia dela ertzainen *ab initio* arreta euskaraz izatea zela egokiena, baina une hartan ezinezkoa zela horrela egitea. Kexagileekin, ordea, ez zen halakorik gertatu; izan ere, nahiz eta hasiera-hasieratik ertzainekin hitz egiten hasi eta identifikatzeko agindua eta horren arrazoiak ezin hobeto ulertu, beren buruak identifikatzeari uko egin zioten esanez agindu hori euskaraz adierazi behar zela, ertzainen jarduna luzatuz eta, ondorioz, gatazka larriagotuz.

7.- 2024ko abuztuaren 13an, MRk Segurtasuna Koordinatzeko zuzendariaren ebazpena igorri zion Arartekoari. Ebazpen horren bidez, zehapen-espeditentea irekitzea erabaki zen, Herritarren Segurtasuna Babesteko 2015eko martxoaren 30eko 4/2015 Lege Organikoan (aurrerantzean, HSBLO) xedatutako arau-hauste bat ustez egiteagatik izan zezakeen erantzukizuna zehazteko, gertakarien egunean bere burua identifikatzeari uko egiteagatik.

Ebazpenak, AAk Arartekoari otsailaren 12an igorritakoak bezala, 602 euroko zehapen-proposamena egiten dio MRri, HSBLOren 36.6 artikulua arau-hauste larriagatik, ertzainek eskatuta bere burua identifikatzeari uko egiteagatik.

Ebazpenaren testuak honako hau dio:

“2023/10/18an, 21:25 aldera, YYY kaleko XX zenbakian herritarren segurtasunerako lanak egiten ari zirela, Ertzaintzako ertzainek ikusi zuten XXXX matrikuladun ibilgailua gaizki aparkatuta zegoela eta trafikoa oztopatzen zuela. Ertzainak ibilgailuaren administrazio-egoerari buruzko informazioa biltzen ari ziren bitartean, titularra, MR, hurbildu zitzairen, eta ertzainek identifikatzeko agindu zioten. Berak uko egin zion bost aldiz egiteari eta ez dut nahi, ez dut nahi esan zien. Ezezkoarekin jarraituz gero, zigortzeko proposatuko zutela ohartarazi zioten, eta berak berdín zait esan zien”.

Gertakariak jasotzen dituen testua AAren aurka sei hilabete lehenago emandako ebazpenaren ia testu bera da (aurrekari hauen 3. puntuan aipatu dugu). Hala ere, honako honetan ertzainak *“herritarren segurtasunerako lanak egiten ari zirela”* aipatzen da, *“bidesegurtasuneko polizia-jarduera batean”* gertatu zirela esan beharrean. Oso bitxia da, bi ebazpenek ezartzen dutenaren arabera, bai AAk bai MRk identifikatzeko eskaeraren aurrean gauza bera eta gaztelaniaz erantzun izana (*“no me da la gana”* eta *“me da igual”*); bertsio hori, gainera, ez dator bat sailak Arartekoari emandako erantzunean azaldutakoarekin (1. eta 2. ertzainek BABi igorritako bertsioan oinarritua).





Zehapen-proposamena ikusita, MRk alegazio-idazki bat aurkeztu zuen epe barruan (zeina neurri handi batean bat baitator AAK bere garaian aurkeztutakoarekin), eta, era berean, ebazpen hau idatzi dugun egunean, zehapen hori ez da irmotzat jo eta oraindik administrazio-bidean jarraitzen du.

8.- Azkenik, adierazi behar da, egindako ikerketa-jarduketan esparruan, Arartekoak sakon aztertu eta transkribatu zuela MRk grabatutako 16 minutuko audioa, funtsezko froga-elementua baita, Donostiako eta Bilboko ertzain-etxeetara egindako deien grabazioekin batera. Erakunde honek sakonki aztertu du, halaber, dei horien transkripzioa, BABen txostenean jaso. Azkenik, parte hartu zuten ertzainen eta kexagileen bertsioak erabat desberdinak direnez, Arartekoak, AArekin eta MRrekin biltzeaz gain, beren bertsioa pertsonalki ezagutu eta baloratzeko, abuztuan beste bi bizilagun elkarrizketatu ahal izan zituen. Bizilagun horiek taberna bereko terrazan zeuden gertakarien egunean, eta beraz haien testigantzak eman dituzte. Testigantza horiek gomendio honen 1. ERANSKINEAN jaso dira, eta funtsean bat datoz kexagileen bertsioarekin (jatorriz euskaraz):

Gogoetak

1. Inplikaturako ertzainen euskarazko arretari eta kexagileei emandako tratuari dagokienez, Arartekoak honako gogoeta hauek egin ditu:

Espainiako Konstituzioaren 3. artikulua gaztelaniaren ofizialtasuna ezartzen du estatuko hizkuntza ofizial gisa, eta gainerako hizkuntzak beren autonomia-erkidegoetan ere ofizialak direla ezartzen du, estatutuekin bat etorritik. Bestalde, Gernikako Estatutuak 6. artikuluan ezartzen du euskara eta gaztelania koofizialak direla Euskadin, eta herritar guztiek bi hizkuntzak ezagutzeko eta erabiltzeko eskubidea dutela.

Euskara hizkuntza minoritarioa denez, Eusko Legebiltzarrak azaroaren 24ko 10/1982 Legea onartu zuen, euskararen erabilera normalizatzeko oinarritzkoa. Lege horren 5. artikuluan herritarren eskubideak eta herri-aginteen hizkuntza-betebeharrak ezartzen dira, nagusia honako hau izanik: ***“Arduralaritzarekin eta Autonomia-Elkartean kokaturako edozein lhardutze-Sail edo Erakunderekin harremanak hitzez eta/edo idatziz euskeraz edo gaztelaniaz izateko eskubidea.”***. Herritarrek eskubide hori erabiltzen eta baliatzen dutela bermatzeko, 5. artikulua ezartzen du herri-agintek ***“Eskubide hauek eraginkorrak eta benetakoak izan daitezen, herri-agintesailak beraien erabilpena bermatuko dute”***.

Urte hauetan guztietan, kexak izapidetzean, Arartekoak kontuan hartu du azaldutako araubide juridikotik eratorritako hizkuntza-eskubideak herritarren eskubide subjektiboak direla; hala ere, botere publikoek etenik gabe aplikatzekoak dira, zerbitzu edo administrazio publiko bakoitzean euskararen normalizazio-prozesuaren ondorioz eskubide horiek baliatzeko berme gisa. Horretarako, Arartekoak, besteak beste, kasuan kasuko administrazio edo zerbitzu publiko bakoitzaren hizkuntza-normalizazioko planen garapen-maila aztertu du,





administrazio publikoen eskakizun-maila zehazteko euskaraz arreta jasotzeko eskubidea gaztelaniaren baldintza berberetan gauzatzeari dagokionez, hori baita hizkuntza-normalizazioko prozesuen azken helburua.

Horrek esan nahi du, hizkuntza-normalizazioa 40 urte etenik gabe landu ondotik, derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna duen administrazio edo zerbitzu publiko bateko lanpostu publiko jakin baten prozesua bukatu den kasuetan, euskal administrazio publikoek bermatu egin beharko dutela herritarren eskubidea euskaraz artatuak izateko, bestela, sistema horrek ez bailuke jatorrizko zentzurik izango. Horrela, hizkuntza-eskakizunen egiaztatzearen helburua lanpostu hori euskaraz betetzeko gaitasuna bermatzea da, egiaztatzeko betebeharrak horrek legezko uztardura baitu herritarrek zerbitzu hori euskaraz jasotzeko duten eskubidearekin, eta, beraz, inguruabar horiek betetzen dituen profesionalari legez eska dakiokete zerbitzua euskaraz eman dezan.

Bestalde, 2022tik, Arartekoak kezka adierazi dio Eusko Legebiltzarrari, herritarrek euskaraz artatzeko eskatzeak herritarren eta euskal polizien arteko gatazka-egoerak eragin dituelako. Hala, Eusko Legebiltzarrarentzako 2022ko txostenean, Arartekoak honako hau adierazi zuen hurrengo urteetan errepikatu diren egoerei dagokienez: *"Segurtasunaren arloan, Arartekoak aditzera eman nahi du, beste urte batez, kezkatuta dagoela antzeko hainbat kexa jaso dituelako, zehazki, Udaltzaingoko ertzainei euskarazko arreta eskatzeak gatazka egoerak eragin dituela eta. Beste behin, erakunde honek azpimarratu du beharrezkoa dela poliziako ertzainen jarduketan hizkuntza protokoloak² hobetzea eta ezartzea, hizkuntza eskubideei lotutako prestakuntza espezifikoarekin batera, ulertzeko, ertzainei eskatu ahal zaien gutxiengo baldintza bat dela zerbitzua bi hizkuntza ofizialetako edozeinetan ematea, horrek, herritarrei arreta ematerakoan, inolako istilurik sortu gabe".*

Kexaren xede diren gertakariei dagokienez, kexagileei emandako tratua eta esku hartu zuten ertzainek euskaraz emandako arreta aintzat hartuta, lehenik eta behin adierazi behar da, sailak bere erantzunean adierazi duenez, 1. ertzainak, zeinari hasiera batean AAK euskaraz hitz egin baitzion (sailak emandako erantzunaren arabera), ez duela euskarazko hizkuntza-eskakizunik; patruila-kideak, berriz (hots, bigarren ertzainak), Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Esparru Bateratuko (hizkuntza-gaitasuna definitzen duen nazioarteko estandarra) B2 hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta du, eta horrek, araudiaren arabera, gaitasuna ematen dio honako honetarako: *"Jatorrizko hiztunekin mintza daiteke, jartotasunez eta naturaltasunez, halako eran non ez solaskide batek ez besteak ez duten ahaleginik egin behar elkar ulertzeko"*³. Beraz, hasiera-hasieratik, 2. ertzainak gaitasun nahikoa zuen euskaraz arreta emateko, eta, hortaz, ertzain horri legez eskatu ahal zitzaion zerbitzua euskaraz emateko. Hala, Donostiako ertzain-etxeko arduradunek

² Pertsona batek euskaraz hitz egiten duenean eta/edo euskaraz artatua izatea eskatzen duenean, eta pertsona horrekin harremanetan jartzen den eragileak edo eragileek euskaraz ez dakienean edo elkarrizketa bat izateko behar besteko mailarik ez duenean, herritarrekiko tratuari buruzko jarraibideak biltzen dituen protokoloa.

³ DEKRETUA, azaroaren 9koa, euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu, eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuko mailekin parekatzeko dena. I. ERANSKINA Hizkuntzen ikaskuntza, irakaskuntza eta ebaluaziorako Europako Erreferentzi Marko Bateratua. 1. koadroa. Erreferentzi maila bateratuak: eskala orokorra.





AAri euskaraz artatua izateko eskubidea bermatu behar zioten gertakarien hasieratik; horrela, Arartekoaren ustez, ondorengo gatazka saihestu ahal izan zen.

2. ertzainari dagokionez, sailak Arartekoari emandako erantzunean zera adierazten du: *“al parecer, uno de ellos se manejaba en el idioma, pero no con la suficiente fluidez para, por ejemplo, explicar los motivos de la identificación”*. Horrela, ulertzen da 2. ertzainaren borondatearen mende dagoela euskaraz erantzuteko legezko betebeharra, egiaztatutako gaitasun legetatik eratorrita. Hori, gainera, kontraesanean dago Segurtasun Sailak berak geroago azaldutako bertsioarekin, ontzat ematen baitu, besterik gabe, BABen txostenean jasotako bertsioa, esku hartu zuten lehen ertzainen euskarazko arretari dagokionez; izan ere, honako hau esaten du: *“La mujer se dirigió al ertzain 1 en euskera y este, al no tener conocimientos del idioma, se dirigió a la mujer en castellano. En ese momento es cuando la mujer exigió al ertzain 1 que hablara en euskera. (...) El ertzain 1 le indicó a la mujer que su compañero, el ertzain 2, podía dirigirse a ella en euskera, pero esta se negó y exigió que fuera el propio ertzain 1 el que le hablara en euskera, diciéndole: “...deja de hacer el tonto y atiéndeme de una puta vez”. 1. ertzainak, orduan, dokumentazioa eskatu zion ertzainari egindako errespetu-faltagatik”*.

Aurkeztutako audioan egiazta daiteke 2. ertzainak ez duela euskaraz erantzuteko borondaterik agertzen (5:55 minutua: *¿Entiende que me expreso mejor en castellano y tengo mi derecho?*). Kexagileek euskaraz erantzuten diote, eta ertzainari zuzen azaldu ere, ertzainek beren eginkizunak betetzean herritarrak direla hizkuntza-eskubideak dituztenak, ez ertzainak.

Nabarmendu behar da, halaber, BABek bidalitako txostenean jasotako 2. ertzainaren bertsioa 1. ertzainak azaldutakoa baino lehenagokoa dela, ertzain hori beste ertzain-etxe batera lekualdatu baitzuten, eta, hala ere, BABek horri buruz zera adierazten du: *“se recibió en la JAI informe del ertzain 1 en relación a los hechos aquí expuestos. Este informe resulta ser una copia literal del informe remitido en fecha xx por su compañero de patrulla el día de los hechos, ertzain 2, por lo que no se reproduce el mismo, al estar previamente redactado, remitiéndonos en su integridad a la literalidad de este”*. 1. eta 2. ertzainek egindako txostenak BABi emandako erantzunean adierazitako alderdietan berdinak direnez, ondoriozta daiteke agian biak ados jarri zirela gertakarien bertsioa BABi azaltzean. Bertsio horixe jaso da BABen txostenean, egiaztapen gehiagorik egin gabe, eta sailak zuzenean txertatu du emandako erantzunean.

Adierazi behar da, halaber, bertsio hori kontraesanean dagoela AAri eta MRri HSBLO hausteagatik egindako zehapen-proposamenean jasotakoarekin; izan ere, gertaerak azaltzean ez da ezer aipatzen AAk euskaraz erantzuteko egindako eskaerari buruz, eta adierazten da bai AAk bai MRk, ertzainek identifikatzeko eskatu zitetenean, gaztelaniaz ia hitz berberak esan zituztela: *“No me da la gana”* eta *“me da igual”*.





Bai BABek, bai sailak Arartekoari emandako erantzunean egiazkotzat hartu duten ertzainen bertsioa erabakigarria da; izan ere, Arartekoak elkarrizketatutako bi bizilagunek (1. eranskina) azpimarratu dute gatazka sortu zela AAK 1. eta 2. ertzainei arreta euskaraz jasotzeko behin eta berriz eskatu zirenean. Gainera, emandako testigantzan, bi lekukoek esan zuten harrিতuta eta suminduta gelditu zirela azkenean, MRk eta AAK NANA entregatu zutenean, 2. ertzainak, lekukoaren arabera, euskara ezin hobean zera esan zuenean: *"Horrenbesterako al zen??"*.

Arartekoaren iritziz, ondoriozta daiteke bai 1. ertzaina bai 2. ertzaina behin eta berriz ukatu zirela kexagileak euskaraz artatzera, eta, horrenbestez, urratu egin zituztela haien hizkuntza-eskubideak. Ertzain horiek emandako tratua ere eztabaidagarria da bizilagunen bertsioak aintzat hartuz gero (1. ERANSKINA); izan ere, 1. ertzainak hainbat aldiz gaizki erantzun zion AARI, audioan entzun daitekeen bezala, eta AAK polizia-autoaren matrikulari argazkia ateratzeak eragin zuen azkenean gatazka, 1. ertzainak identifikazio-zenbakia emateari uko egin ondoren (audioa 1. ertzainak esandako honako hitz hauekin hasten da: *"Quiero saber quién eres porque has sacado una foto del vehículo"*).

Donostiako ertzain-etxeko ertzainaren (Donostiako ertzaina) jardunari dagokionez, BABek emandako telefono-deiaren transkripzioak erabat berresten du AAK gertatutakoaren azalpenean salatutakoa (euskaraz arretarik ez ematea eta ertzainak errespeturik gabe tratatzea AAK euskaraz artatzeko eskatzean, deia moztuz eta guzti). Hori dela eta, BABek Seguritasuneko sailburuordeari eskatu zion diziplina-espeditente bat irekitzeko ertzain horri, Euskal Herriko Polizia Kidegoen Diziplinako Araudia onartzen duen maiatzaren 3ko 170/1994 Dekretuan ezarritako hutsegite larri bat ustez egiteagatik.

Bilboko ertzain-etxeko ertzainaren jardunari dagokionez, Arartekoak honako hau adierazi du: 1. eta 2. ertzainek emandako tratu txarra salatzeke AAK Donostiako ertzain-etxera egindako deiaren ondoren, eta gatazka bost ertzain zeuden furgoneta bat iristearekin larriagotu ondoren, Arartekoak Bilboko ertzainak eskainitako errespetuzko tratu profesionala nabarmendu nahi du. Ertzainak, gainera, euskaraz arazorik gabe artatzeko ahalegina egin zuen, AARI hizkuntza horretan hitz egiteko zailtasunak zituela adierazi arren (sailak ez du argitu ertzain horren hizkuntza-eskakizuna). BABen txostenean jasotako telefono-deiaren transkripzioa bat dator, halaber, kexagileek azaldutakoarekin. Kexagileek, gainera, Arartekoan jarritako kexan eta Eusko Jaurlaritzari bidalitako idazkietan hasiera-hasieratik eskerrak eman zizkioten ertzain horri bere esku-hartzeagatik eta tentsio handiko une gatazkatsu batean laguntza enpatiko eta hurbilekoa emateagatik. Era berean, ertzain horrek (Bilboko ertzaina) BABi aurkeztutako txostenean adierazten da AAREN jarrera errespetuzkoa zela eta beldur zela nabaritzen zela, tentsioaren ondorioz negar egiten hasi baitzen. Hori guztiz kontraesanean dago sailak Arartekoari emandako erantzunean ateratako ondorioarekin, honako hau adierazten baita: *"AAK eta MRk, jarduketaren hasieratik, jarrera desafiatzaile eta desobeditzailea izan zuten"*.

Arartekoari emandako erantzunean, Seguritasun Sailak adierazten du azkenean euskaraz arreta eman zitzaiela kexagileei, bost ertzain zeuden polizia-furgoia





bertaratuta, horietako batek euskarazko C1 maila baitzuen: *“ha quedado constatado, que se solicitó la presencia de personal policial con el nivel suficiente para atender a estas personas en euskera -antes se ha hecho referencia a que la actuación se abrió a las 21:23 horas y el ertzain requerido con nivel C1 se persono a las 21:32 horas-, por lo que los ertzains intervinientes sí hicieron lo posible para que a estas personas se les garantizaran sus derechos”.*

Ararteko honentzat harrigarria da esku hartu zuten lehen bi ertzainetako batek euskarazko B2 maila izanik, ez egotea beste polizia-baliabiderik euskaraz arreta ematera joateko eta beraz bost poliziako furgoi bat bidaltzea, eta horien artean batek bakarrik kexagileei euskaraz hitz egitea eta hizkuntza horretako C1 maila izatea. Are larriagoa da polizia-baliabide horrek egin zuen lehenengo jarduketa (Segurtasun Sailaren erantzunaren arabera, honako honetarako bidali zen: *“para atender a la solicitud de ser atendidos en euskera de los reclamantes”*) MRri gorputz-miaketa bat egitea izan zela, hainbat ertzaink taldetik bereizteko oztopo eginez. Gorputz-miaketa horri buruz ez du ezer aipatzen ez sailak, ez BABen txostenak, eta, Arartekoaren iritziz, ez du inolako lege-oinarririk, laugarren gogoetan azalduko dugun moduan. Azkenik, audioaren azterketatik eta ertzainak BABera bidalitako txostenetik ondoriozta daitekeenez, euskarazko C1 maila zuen polizia-furgoiaren ertzainak kexagileei euskaraz arreta eman bazien ere, ertzain horrek azaldu zien auto bat gaizki aparkatu ondoren identifikatzeari uko egin ziotelako joan zirela (ez euskaraz arreta emateko). Gainera, 1. eta 2. ertzainei aurka egitea saihestu zuen AAk 1. ertzainak egindako zehapen-proposamena euskaraz jakinarazteko eskatu zionean. Horrela, bada, bigarren polizia-baliabide horrek ere ez zuen bermatu euskaraz arreta ematea; aitzitik, badirudi euskaraz zekien ertzaina beste lau lankiderekin batera joan zela 1. eta 2. ertzainei AA eta MR identifikatzen laguntzera. Gertakarien bertsio hori bat dator Bilboko ertzainak esandakoarekin, sailak erantzunean dioenaren arabera: *“Emakumeak azpimarratu zuen Ertzaintzak emandako tratua tamalgarria zela eta gaizki sentitzen zela horregatik. Salatzailleak telefonoz egindako eskaerari erantzuten saiatzeko, Bilboko ertzain-etxeko ertzaina harremanetan jarri zen Donostiako ertzain-etxeko AKZko operadorearekin, gatazkan bitartekari-lanak egiten saiatzeko. Hala, pertsona horrekin euskaraz hitz egin zezakeen norbait zeukan baliabide bat bidaltzeko eskatu zion. Erantzun zioten bazekitela zer egin behar zuten eta horixe egiten ari zirela”.*

Sailak adierazitakoaren aurka, eta aurreko guztia kontuan hartuta, ondoriozta daiteke esku hartu zuten ertzainek, Bilboko ertzainak izan ezik, ez zutela ahal zuten guztia egin kexagileei arreta euskaraz emango zitzaizela bermatzeko, eta beraz eskaera hori bigarren mailan geratu zen. Badirudi polizia-jarduketa guztietan nagusi direla errespetuzko tratu proportzionalik eta kexagileei egokitutako traturik eza. Azken batean, Arartekoaren ustez, ertzainek tratu desegokia eman zieten, iraingarritzat ere jo daitekeena, kontuan hartuta bost ertzain zituen polizia-furgoi bat bertaratu zela eta gorputz-miaketa bat egin ziotela kexagileetako bati.

2. Kexagileak HSBLOren arabera identifikatzeko legitimitateari dagokionez, Arartekoak honako gogoeta hauek egin ditu:





Sailak, Arartekoari emandako erantzunean, BABek bere txostenean adierazitakoa errepikatu du, eta esku hartu zuten ertzainak AA eta MR identifikatzeko eskatzeko legitimatzen zituzten bost arrazoi/kausa aipatu ditu. Azkenean bi kexagileak identifikatu eta NANA eman arren, sailak 602 euroko zehapen-proposamena egin dio bakoitzari, HSBLOn xedatutako arau-hauste bat ustez egiteagatik, aurrekarien 3. eta 7. puntuetan azaldu den bezala.

Lehenik eta behin, aipatu behar da 1. ertzainak, MRk emandako audioaren hasieran, AAK identifikatzeko arrazoiak euskaraz eskatzean zera erantzun ziola gatzelaniaz: *"Quiero saber quién eres porque has sacado una foto del vehículo"*. Horrek indartu egiten du kexagileen eta bizilagunen bertsioa (1. ERANSKINA); izan ere, polizia-autoaren matrikulari argazkia ateratzean kokatzen dute gatazka larriagotu zen unea, kexagileei arreta euskaraz ematera ukatu ziren lehen ertzainak identifikatuak sentitu baitziren.

Sailak, bere irizpidearen arabera, honako arrazoi hauek ematen ditu HSBLOri jarraiki kexagileak identifikatzeko eskaera justifikatzeko:

- 1. AAK polizia-autoari argazkiak ateratzea eta MRk ertzainen jarduna grabatzea,** HSBLoren 36.23 artikulua aplikatuz. Sailaren ustez, artikulua horrek arau-hauste larritzat jotzen du: *"El uso no autorizado de imágenes o datos personales o profesionales de autoridades o miembros de las Fuerzas y Cuerpos de Seguridad que pueda poner en peligro la seguridad personal o familiar de los ertzains, de las instalaciones protegidas o en riesgo el éxito de una operación, con respecto al derecho fundamental a la información"*.

Lehenik eta behin, adierazi behar da AAK polizia-autoari atera ziola argazkia, ez Ertzaintzako ertzainei, eta MRk izandako elkarrizketa audioan grabatu zuela irudirik erakutsi gabe (kamera une oro lurrera begira dago); beraz, ez zuten Ertzaintzako ertzainen irudirik edo daturik fotografiatu, eta, ondorioz, *a priori*, Arartekoak ez du aipatutako artikulua aplikagarritzat jotzen.

Hala ere, honako hau zehaztu behar da: Xedapen horren (36.23 artikulua) *"baimenik gabe"* tartekia Konstituzioaren aurkakotzat jo da (172/2020 KAE). Horrenbestez, arau-haustea agintarien edo segurtasun-indar eta -kidegoen irudiak edo datu pertsonalak erabiltzea izango litzateke, baldin eta horrek ertzainen segurtasun pertsonala edo familiarra, babestutako instalazioen segurtasuna edo eragiketa baten arrakasta arriskuan jar badezake, EKren 20. artikuluko informaziorako oinarrizko eskubidea errespetatuz. Azken finean, gogoratu behar da, doktrina konstituzionalak adierazitakoaren ildotik, oro har, ezin dela EKren 20⁴ artikulua aldez aurretiko zentsura kaltegarri onartu,

⁴ 20. artikulua

"1.- Hurrengo eskubideak aitortu eta babesten dira:

a) Pentsamenduak, ideiak eta iritziak hitzez, idatziz nahiz beste edozein bideetatik askatasunez azaldu eta zabaltzeko.

b) Ekoizpen eta sortze literario, artistiko, zientifiko eta teknikorako.

c) Katedra-askatasunerako.

d) Edozein hedabidetatik askatasunez egiazko informazioa komunikatu edo jasotzeko. Legeak kontzientzia-klausularako eta lanbide-sekreturako eskubideak arautuko ditu, askatasun horiek egikaritzeko orduan.

2.- Eskubide hauen egikaritzea ezin da inola mugatu aldez aurretiko zentsuraren bidez".





eta, beraz, ezin zituztela grabazioak aldez aurretik debekatu, ezta Ertzaintzako ertzainen irudiak grabatuta ere (hori, dena den, ez zen gertatu).

Ondorioz, kexagileen jokabidea, hots, segurtasun-indar eta -kidegoen ahotsa edo beste datu batzuk (matrikula, adibidez) grabatzea, zuzenbidearen arabera izango litzateke, eta ez luke HSBLOren 36.23 artikulua ildotik arau-hauste larrikeria ekarriko; izan ere, kexagileek ateratako argazkiak eta grabazioa erabili nahi izateak nekez jar zezakeen arriskuan eragiketa baten arrakasta, haiek baitziren poliziaren esku-hartzean inplikaturik zeudenak. Gainera, bildutako datuak, itxuraz, haien eskubide eta interes legitimoak babesteko eta defendatzeko behar-beharrezkoak eta egokiak izan ziren.

Azkenik, azpimarratzekoa da datuak ez direla gerora erabili ertzainen segurtasun pertsonala edo familiarra arriskuan jartzeko, eta, beraz, kexagileen jokabidea, kasu horretan, ez dela gaitzesgarria.

2. **AAk ertzainei esan ziela handik hurbil legez kanpo okupatutako lokal bat zegoela**, HSBLOren 16.1 artikulua aplikatuz, honako hau ezartzen baitu: *"... los agentes de las Fuerzas y Cuerpos de Seguridad podrán requerir la identificación de las personas en los siguientes supuestos: b) Cuando, en atención a las circunstancias concurrentes, se considere razonablemente necesario que acrediten su identidad para prevenir la comisión de un delito".*

Horixe da 1. eta 2. ertzainek aipatu zuten bigarren arrazoia, audioan entzun daitekeen bezala, lehenengo arrazoia autoari argazkia ateratzea zela adierazi ondoren. Argi dago AAri arrazoi horrengatik identifikatzeko eskatzeak ez duela inolako logikarik; izan ere, ertzainen jarduna ez zegoen delitu bat egitea (okupazioa) prebenitzera bideratuta, ez baitzuten inolako esku-hartze polizialik egin horren aurka (ez da *inguruabarrik gertatu*). Bestalde, eta batez ere, AAk ez zuen zerikusirik ustezko okupazioarekin, eta, beraz, emandako arrazoia ez dator bat HSBLOren 16.1 artikuluan ezarritakoarekin, are gehiago kontuan hartuta artikulua horrek arrazoizkotasun-irizpide bat ezartzen duela, zeina ertzainek eta Segurtasun Sailak arrazoitu beharko zuketuen AAri eta MRri egindako zehapen-proposamenetan.

3. **Ibilgailua gaizki aparkatuta egotea**, HSBLOren 16.1 a) artikulua aplikatuz, honako hau ezartzen baitu: *"a) Cuando existan indicios de que han podido participar en la comisión de una infracción."*

Horixe da inplikaturik ertzainek adierazi zuten hirugarren arrazoia. Zehazki, furgoian bertaratu ziren ertzainek, MRk identifikatzeko arrazoiak azaltzeko behin eta berriz eskatu zirenean, arrazoia autoa gaizki aparkatuta zegoela zela erantzun zioten.

Sailak emandako arrazoi horri dagokionez, adierazi behar da HSBLOren 36.6 artikulua ohiko jokabideak ertzaina herritarren segurtasuna babesteko eginkizunak betetzen egotea eskatzen duela, baina kasu horretan ez zen





halakorik gertatu; izan ere, arrazoi horren arabera, ertzainak *"bidesegurtasuneko polizia-jarduketa bat"* egiten ari ziren, AAri egindako zehapen-proposamenak hitzez hitz diotenaren arabera (Segurtasuna Koordinatzeko zuzendariaren 2024ko otsailaren 12ko Ebazpena).

Bestalde, Arartekoak egiaztatu du gaizki aparkatutako ibilgailua berehala lekualdatu zuela gidariak (hau da, MRk), 2. ertzainak emandako jarraibideen arabera, eta ez ziola identifikatzeko eskatu.

4. **AAk izandako errespetu-falta**, HSBLoren 37.4 artikulua arau-hauste arintzat tipifikatzen baitu: *"Las faltas de respeto y consideración cuyo destinatario sea un miembro de las Fuerzas y Cuerpos de Seguridad en el ejercicio de sus funciones de protección de la seguridad, cuando estas conductas no sean constitutivas de infracción penal"*.

Lehenik eta behin, esan behar da sailak Arartekoari emandako erantzunean aipatutako arrazoi hori ez dutela gertakarietan inplikaturako ertzainek adierazten audioan, eta ez dela aipatzen edo arrazoitzen AAri edo MRri egindako zehapen-proposamenetan.

Aurrekoaren ondorioz, Arartekoak ez daki zertan oinarritzen den saila esateko AAK errespetu- eta begirune-faltak izan zituela ertzainekiko. Hori esatea justifikatuko lukeen bakarra esku hartu zuten lehenengo ertzainen bertsioa litzateke; bertsio hori, ordea, *a posteriori* adostu zuten BABi bidalitako txostenean (gogora dezagun 1. ertzainak 2. ertzainak aurretik igorritako bertsio bera kopiatu zuela eta BABi bidali ziola). Bertsio hori ez dator bat AAK audioan duen errespetuzko jarrerarekin, ez eta Bilboko ertzainak Bilboko ertzain-etxera egindako deiari buruz BABi igorritako txostenean adierazitakoarekin ere.

Azaldutako horren guztiaren ondorioz, Arartekoak honako hau ondorioztatu du kexagileak HSBLoren arabera identifikatzeko legimitateari dagokionez:

- Bai AAK bai MRk, azkenean, NANak entregatu zituzten (guztira 40 minutu inguru iraun zuen jarduketak). Hasieratik ez emateko arrazoia ertzainei euskaraz artatuak izateko eskatu zietela izan zen, eta, batez ere, audioan egiaztatu dugun bezala, identifikatzeko arrazoiak azaltzeko eskatu zietelako, kexagileek susmatu baitzuten ertzainek identifikatzeko eskatu zietela zehapena jartzeko, euskaraz artatzeko eskatzeagatik eta ertzainen identifikazioa eskatzeagatik egindako eskaera ukatu zutelako. [Audioa, 9:03 minutua, MR: *"Ni ez naiz ukatzen karneta erakustera, argi gera dadila*. 9:51 minutua, MR: *Identifikatuko naiz, ni ez noa inora, hemen geratuko naiz"*].
- Aurreko puntuaren harira, inplikaturako ertzainek euskaraz, argi eta errespetuz azaldu behar zizkieten identifikazioa eskatzeko arrazoiak, Euskal Herriko Poliziari buruzko legearen testu bategina onartzen duen uztailaren





22ko 1/2020 Legegintzako Dekretuaren 24. eta 25. artikuluetan ezarritakoaren arabera. Horren inguruan, erakunde honek argitu nahi du Ertzaintzako ertzainek tratu zuzena eta zaindua eskaini behar dutela herritarrekin dituzten harremanetan. Era berean, beren esku-hartzeen eraginpekoiei derrigorrez esku-hartzeen inguruko informazio nahikoa eta ulergarria eman behar diete. Gainera, edozein gehiegikeria edo jardun bidegabe saihestuko dute. Eginkizun horiek, bai eta herritarren hizkuntza-eskubideak errespetatzea ere, kexan aipatzen diren gaiekin zerikusia dute eta Ertzaintzaren kode deontologikoan daude jasota.

- Era berean, 602 euroko zehapen-proposamenek (otsailaren 12an AAri egindakoak eta 2024ko abuztuaren 13an MRri egindakoak) ez dute justifikaziorik identifikatzeko egindako eskaeraren arrazoiak aintzat hartuta; izan ere, AAren aurka egindako zehapen-proposamenak bakarrik aipatzen du ertzainak *“bidesegurtasuneko polizia-jarduera batean”* ari zirela, eta MRren aurka jarritakoak zera aipatzen du: *“herritarren segurtasunerako lanak egiten ari zirela”*.
- Ertzaintzak HSBL0a aplikatuz jarritako errekurtsuari dagokionez, Arartekoak gogorarazi nahi du Ertzaintzaren esku-hartzea behar duten egoeretara mugatu behar dela, *“babestutako ondasun juridikoa”* herritarren segurtasuna bera delako, Konstituzio Auzitegiak azaroaren 19ko 172/2020 Epaian ezarritakoaren arabera:

*“Como bien jurídico cuya tutela corresponde ejercer al Estado, la seguridad ciudadana se puede entender como el estado en el que el conjunto de la ciudadanía goza de una situación de tranquilidad y estabilidad en la convivencia que le permite el libre y pacífico ejercicio de los derechos y libertades que la Constitución y la Ley les reconocen (STC 55/1990, de 28 de marzo, FJ 5), lo que se puede lograr a través de acciones preventivas y represivas. Es por ello que el legislador justifica la intervención de las autoridades por **“la existencia de una amenaza concreta o de un comportamiento objetivamente peligroso que, razonablemente, sea susceptible de provocar un perjuicio real para la seguridad ciudadana y, en concreto, atentar contra los derechos y libertades individuales y colectivos o alterar el normal funcionamiento de las instituciones públicas”** (art. 4.3 LOPSC); intervención previa en aras de lograr la seguridad ciudadana, que es distinta de la posterior actividad sancionadora.*

La interpretación de este concepto de seguridad ciudadana ha de realizarse tomando en consideración los fines que con ella se persiguen (art. 3 LOPSC) y los principios rectores de la acción de los poderes públicos (art. 4 LOPSC)“.

Bada, erakunde honen ustez, legearen tipifikazioak babestu nahi duen ondasun juridikoa EKren 104.1 artikulua Segurtasun Indar eta Kidegoei esleitzen dien eginkizuna da, hau da, eskubide eta askatasunen erabilera askea babestea eta





herriarren segurtasuna bermatzea, horrela ulertuta: *"requisito indispensable para el pleno ejercicio de los derechos fundamentales y las libertades públicas,"* (4/2015 Lege Organikoaren 1.1 artikulua) eta *"la protección de personas y bienes y el mantenimiento de la tranquilidad de los ciudadanos"* bidez (4/2015 Lege Organikoaren 1.2 artikulua).

3. Esku hartu zuten ertzainak ez identifikatzeari dagokionez, Arartekoak honako gogoeta hauek egin ditu:

Kexagileek kexan adierazi dutenez, identifikazioa eskatu zieten ertzain guztiek "ez zeukatela zenbakia agerian (estalita zutela) eta zenbakia erakutsi zioten 3 kasuetan, gainean zuten estalki modukoa (ez dakite zehatz zer zen) kendu behar izan zutela zenbakia ikusi ahal izateko".

Sailak kontu horri buruz dio kexan hiru ertzainren identifikazio-zenbakiak agertzen direnez eta audioan beste bati zenbakia esaten entzuten zaionez, horrek frogatzen duela ertzainek ez ziotela uko egin informazio hori emateari. Horri begira, Arartekoak adierazi nahi du kexagileek ez dutela ukatzen azkenean hiru ertzain identifikatzea lortu zutenik; aitzitik, salatzen dute hasiera batean behin baino gehiagotan uko egin ziotela identifikatzeari. Bestalde, sailak ez du argitu ertzainek zenbakia argi eta garbi ikustea eragozten duen ehunik edo txaleko gainjarririk daramaten, kexagileek salatu duten bezala. Horrek urratu egingo luke Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Legearen⁵ testu bategina onartzen duen uztailaren 22ko 1/2020 Legegintzako Dekretuaren 25.1 d) artikuluan ezarritakoa, zeinak zenbakia ageriko toki batean eramatera behartzen baitu.

4. Bost ertzain zituen furgioa iritsi ondoren MRri egindako gorputz-miaketari dagokionez, honako gogoeta hauek egin nahi ditugu:

Lehenik eta behin, nabarmentzekoa da sailak ez duela gorputz-miaketarik aipatzen, baina argudiatzen du Ertzaintzako bost ertzain zituen furgioa bidaltzeko arrazoi nagusia euskaraz arreta ematea bermatzea zela, polizietako batek euskarako C1 titulua zuelako.

Herritarren Segurtasuna Babesteko martxoaren 30eko 4/2015 Lege Organikoaren (HSBLO) 20. artikulua zera dio: *"Podrá practicarse el registro corporal externo y superficial de la persona cuando existan indicios racionales para suponer que puede conducir al hallazgo de instrumentos, efectos u otros objetos relevantes para el ejercicio de las funciones de indagación y prevención que encomiendan las leyes a las Fuerzas y Cuerpos de Seguridad"*.

⁵ d) Izaera profesionala egiaztatuko dute hala behar den guztietan eta euren jarduketekin zerikusia duten pertsonak hala eskatuz gero. Euren buruak identifikatuko dituzte herritarren aurrean, edozein polizia-jarduketa hasi aurretik, eta ziurtatuko dute herritarrak ohartu direla zer diren. Horretarako, zerbitzuak iraun bitartean erregelamenduzko uniformea jantzi behar badute, uniformearen ageriko toki batean eramango dute ertzain bakoitzari dagokion identifikazio pertsonala. Erregistro batean egongo dira jasota erabilitako identifikatzaile pertsonal horiek, bakoitza nork eramaten duen jakin ahal izateko moduan.





Erakunde honek lehenago ere zalantzan jarri du gertakariak poliziaren jarduketara eskatzen zutenik herritarren segurtasuna bermatzeko ondasun juridiko gisa, Konstituzio Auzitegiaren 172/2020 Epaiari jarraiki. Horregatik, sailak bidalitako dokumentazioa aztertu ondoren, Arartekoak uste du ez zegoela legezko estaldurarik, ezta arrazoirik ere, MRri gorputz-miaketa egiteko. Jarduteko modu horrek, aztertutako gertakari guztien testuinguruan, gatazka arrazoirik gabe asko larriagotzea ekarri zuen Arartekoaren iritziz, eta emandako tratua, aztertutako gertakarien inguruabarrak aintzat hartuta, iraingarritzat jo daiteke, AAri eta MRri auzokideen aurrean eragin zien umiliazioagatik.

5. Ertzainei euskaraz arreta emateko egindako eskaeraren eta HSBLO urratzeagatiko zehapen-proposamenaren arteko harremanari dagokionez, baita BABek egindako ikerketari dagokionez ere, Arartekoak honako gogoeta hauek egin ditu:

Urriaren 28ko Arartekoaren 7/2011 Gomendio Orokorrean “Poliziaren jardura eta praktiketako berme sistemari buruzkoa”, Arartekoak ohartarazi du poliziar-duradunek jakitun izan behar dutela argiketariak edo administrazio-salaketak egitean lege-antolamenduak ertzainei ematen dien ahalmenaz abusa daitekeela. Hori jardun maltzurak prebenitu eta antzemateko aurretiazko urratsa da. Era berean, ohartu da eremu honetan gehiegikeriek “kontrasalaketa” izenekoari erantzun diezazkiotela. Horren arabera, ertzainek pertsona baten aldetik beren esku-hartzeak kexa bat sor dezakeela antzematen dutenean, aurreratu egiten dira pertsona horren aurka salaketa eginez. Azaldu behar da arlo horretan egon daitezkeen gehiegikeriak gehienetan ez direla besterik gabe ikusten, legezkoak diren polizia-jardueren itxurapean estalita egoten direla baizik; ondorioz, zailagoa izaten da halakoak antzematea eta frogatzea. Aurrekoaren harira, halako gehiegikeriak saihesteko eta azkenean gertatzen badira antzemateko, kontrol-mekanismoak zehaztea gomendatzen du (II.2.3. atala).

Gomendio Orokor horretan bertan, Arartekoak adierazi du poliziaren arduradunek ikerketako barne-prozedurari ofiziozko hasiera eman behar diotela polizia-ertzainren batek ustez oker jardun duela jakinez gero, gertatutakoa ikertu, jardura hori bide egokitik joan ote zen egiaztatu eta, hala badagokio, bidezko neurriak hartzeko. Halaber, adierazi du poliziaren arduradunek aintzat hartu behar dituztela herritarrek egindako kexak edo salaketak, haien berri izateko bidea edozein dela ere, betiere ikertu eta argitu behar duten lehenengo zantzu gisa, argi eta garbi funtsik ez dutenean izan ezik.

Erakunde honek aipatu gomendioan nabarmendu duenez, ikerketaren edukia egokia eta nahikoa izan behar du aztertzen ari den egoera argitzeko. Era berean, azpimarratu du gertatutakoa argitzeko benetako esfortzua egin behar dela ikerketan, eta baliagarriak diren aztertze-aukera guztiak agortu behar direla gertaerak argitu ahal izateko. Arartekoaren arabera, kexan aipatutako ertzainek egitatei buruzko beste bertsio bat emateak berez ez du balio beste ikerketa batzuk baztertzeko edo jarduketaren egokitasunari buruzko iritzi bat oin hartzeko. Era berean, kexak ikertzean, gertatutakoan parte hartu duten ertzainen lekukotasuna





eskuratzea ez da nahikoa, baldin eta beste ikerketa-jarduera batzuk egiteko ezintasuna justifikatzen ez bada; ertzainen bertsioa ezin da besterik gabe ontzat eman (II.1.1. atala).

Bestalde, Arartekoak azpimarratu du ikerketa zabaltzeak ez duela esan nahi kexari sinesgarritasun osoa ematen zaionik, ez eta polizia-ertzainen profesionaltasuna zalantzan jartzen denik ere; aitzitik, funtsezko tresna da jarduketa ezegokiak prebenitzeko eta, halakorik balego, antzemateko eta zuzentzeko.

6. Sailak Ertzaintzan euskararen erabilera normalizatzeari buruz bidalitako jarraibide-proposamenari eta prestakuntzari buruz bidalitako dokumentazioari dagokienez, Arartekoak honako gogoeta hauek egin ditu:

Sailak berak erantzunean adierazi duen bezala, erakunde honek behin eta berriz adierazi du poliziek jarduteko hizkuntza-protokoloak⁶ hobetu eta ezarri behar direla, hizkuntza-eskubideen arloko prestakuntza espezifikoarekin batera. Arartekoari ez dagokio oraindik onartuta ez dagoen jarraibide baten edukiari buruzko iritzia ematea; hala ere, jarraibide horrek erakundeak garatutako hizkuntza-protokolo baten edukia jaso eta zabaldu egiten du. Horregatik, Arartekoak arretaz aztertu du jarraibidea, eta uste du edukia, behar bezala hedatuz gero, egokia dela, hasiera batean, euskaraz arreta emateko protokolo gisa eta Ertzaintzako ertzainek herritarren hizkuntza-eskubideei buruz duten ezagutza eta euskara hizkuntza minoritario gisa lehentasunez erabiltzea sustatzeko. Arartekoaren iritziz, ertzain-etxe guztietan horrelako jarraibide bat onartu eta hedatzea, Sailaren eta Ertzaintzaren webguneetan argitaratzea, eta ertzain-etxeetan ageriko toki batean jartzea aurrerapauso garrantzitsua izango litzateke Ertzaintzak euskara normalizatzeko prozesuan.

Arartekoak, bidalitako dokumentazioagatik ez ezik, Arkauteko akademian Ertzaintzako ertzainak herritarren hizkuntza-eskubideei buruz prestatzeko saila sustatzen ari den ekimenen berri ere izan du saileko arduradunen eskutik. Arartekoak uste du kexa honetan adierazitako jarrerak aldatzeko funtsezko oinarria dela Ertzaintzako ertzainek gai horri buruz duten hasierako eta etengabeko prestakuntza, bai eta euskararen erabilera normalizatzeko jarraibideari buruzko berariazko prestakuntza ere, jarraibide hori onartuz gero.

Horregatik guztiagatik, Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailari gomendio hau egiten diogu, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak —erakunde hau sortu eta arautzekoak— 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

⁶ Pertsona batek euskaraz hitz egiten duenean eta/edo euskaraz artatua izatea eskatzen duenean, eta pertsona horrekin harremanetan jartzen den eragileak edo eragileek euskaraz ez dakienean edo elkarrizketa bat izateko behar besteko mailarik ez duenean, herritarrekiko tratuari buruzko jarraibideak biltzen dituen protokoloa.



GOMENDIOA

1.- Ertzainek herritarrei arreta euskaraz emango dietela bermatzea, gomendio honetan adierazitako zentzuan, arreta euskaraz jasotzea eskatzen duten pertsonen diskriminazioa saihestuz gaztelaniaz hitz egiten duten ertzainek emandako tratuari dagokionez.

2.- Ertzainek errespetuzko tratua izatea bermatzea herritarrek euskaraz hitz egiten dietenean, eta horri buruzko kexak eta salaketak ikertzea, Arartekoaren 7/2011 Gomendio Orokorrean adierazitakoari jarraiki.

3.- Kexagileek HSBLO urratzeagatik jarritako zehapen-proposamenari buruz aurkeztutako alegazioak aztertzea, ebazpen honetan azaldutako gogoeta juridikoak behar bezala kontuan hartuta.

4.- Gogoan har dezala, hala badagokio, kexagileei barkamena eskatzeko eskaera instituzionala bidaltzeko aukera, Arartekoak administrazio publikoen eta herritarren arteko jardunean sustatzen duen ikuspegi errestitutiboa betez.





1 ERANSKIÑA

Gertaeren egunean, erreklamatzailleak zeuden tabernako terraza berean, bi auzokideren testigantza jaso du Arartekoak bere jardueren esparruan (jatorrizko bertsioak euskaraz).

1 AUZOKIDEA: Terrazan zeudela ikusi zituzten Ertzaintza eta udaltzainen kotxe batzuk gora eta behera eta ertzaintzaren kotxe bat gelditu zen matrikula hartzen txarto aparkaturik zegoen kotxe bati. MR eta AA hurbildu ziren eta ertzain batek esan zion MRri hortik kotxea mugitzeko. MR kotxean sartu eta ondo aparkatzera joan zen. Bitartean AAK lasai eta errespetuz beste ertzainari esan zion auzoan arazo larriagoak daudela adibidez lokal okupatuarekin. Ertzainak esan zion AAri *"que le hablase en castellano"* eta AA uneoro euskaraz azaldu zion bere eskubidea zela euskaraz artatua izatea eta eskatu zion euren identifikazioa horren aurrean ertzaina oldartu zen eta modu desegokian erantzun zion AAri *"que lo pidiese en comisaría y que ya está bien"* edo horrelako zerbait eta kotxean sartu eta joan ziren, orduan bazihoazela AAK ertzaintzaren kotxeko matrikulari atera zion argazkia.

Une horretan AAK deitu zuen Donostiako komisaldegira eta bitartean ertzainak kotxea aparkatu eta beragana joan ziren identifikatzeko eskatuz, NANA eskatu zioten eta AAK zergatik galdetu zion eta jarraitu zuen euskaraz esateko eskatuz. MR une horretan heldu zen eta ikusirik liskarra grabatzen hasi zen mugikorrarekin eta galdetu zion ia zeintzuk ziren delituaren zantzuak identifikatzeko eskatzeko biak (berari ere NANA eskatu zioten). Hor zeudela tira biraka batzuk euskaraz eta ertzainak erdaraz Ertzaintzaren furgioa agertu zen eta 5 ertzain bajatu ziren kaskoekin modu agresiboan eta argi geratu zitzaigun terrazako guztioi egoera larriagotu egin zela. MR katxeatzera eraman zuten albo batera eta AAK deitu zuen Bilboko komisaldegira eta ertzain euskaldun batekin egin zuen berba. Bitartean, MR beste ertzainarekin hizketan egon zen eta ertzainak eskatu zion hortik kontxea kentzeko ematen zuelarik hor amaituko zela dena.

Etorritako bost ertzain artean bat euskaduna zen eta lekukoak galdetu zion ia *"zergatik hau dena euskaraz artatua eskatzeagatik"* explikazioak eskatuz eta ertzainak erdi lotsatuta erantzun zion eurak deituak izan zirela eta ez zekitela aurretik zer gertatu zen, kotxe bat txarto aparkatuta zegoela. Lekukoak azaldu zion hori lehen momentutik amaitua zela eta euskararena izan zela gatatzaren arrazoia.

Orduan azkenean AAK eman zion NANA eta hasierako ertzainak ozen jende guztiak entzun ahal izateko esan zituen AAren izen abizenak eta ez identifikatzeagatik tramitatuko zitzaiola isuna. AAK etorritako euskaldunari eskatu zion berak jakinarazteko berari euskaraz, bere eskubidea zela eta honek esan zion bera ez zela elkarrizketa horren parte, berarekin ez zihoala asuntua. Azkenik han zegoen beste lekuko bati hasierako beste ertzainak esan zion zerbait euskaraz eta lekukoak erantzun zion ia benetan euskalduna zela liskar guztiaren ondoren.





2 AUZOKIDEA: XXXX auzoko taberna baten terrazan zeuden lagun batzuk zerbait hartzen. Euretako batek kotxea ohiko leku batean zeukan baina txarto aparkaturik. Orduan ikusi zituzten gora eta behera ibiliak ziren Ertzaintza eta udaltzainen kotxe batzuk (2023ko udazkenetik bizikidetzeta arazoak sortu dira lokal batzuk okupatuak izan direlako auzoan) eta ertzaintzaren kotxe bat gelditu zen matrikula hartzen txarto aparkaturik zegoen kotxeari. Jabea (MR) eta lagun bat (AA) zuzendu ziren hara eta AAK ertzainei esan zien ia beste gauza larriagorik ez al zegoen auzokide bati isuna jartzea baino (euskaraz). Ertzainek erantzun zuten uneoro erdaraz. AA batekin gelditu zen berbetan azalduz auzoan adibidez lokal okupatua zegoela eta liskarrak sortzen direla. MR bitartean beste ertzainarekin aritu zen eta eskatu zion hortik kentzeko kotxea eta MR joan zen bere kotxea aparkatzera eta hor bazirudien geratuko zela dena isunik gabe ez zer.

AA bitartean betiere euskaraz artatua izateko eskatzen ari zitzaion ertzainari, honek erdaraz egiten zion bitartean eta momentu batean bat batean "listo ya está bien" erantzun zion AARI asaldaturik eta modu txarrez eta ertzain biak sartu ziren kotxean alde egiteko. Orduan AAK ertzaintzaren kotxeari argazkia atera zion eta hor gauzak erabat okertu ziren. Ertzainek kotxea gelditu eta AArengana joan ziren. Lehengoko ertzaina hasi zitzaion AARI eskatzen identifikatzeko NANarekin eta AAK jarraitu zuen eskatuz euskaraz artatua izateko. Une horretan MR agertu zen eta hurbildu zen kezkatuta egoera okerrera joan zela ikusirik. Hor hasi zen beste ertzainarekin Identifikatzeko NANA eskatuz eta MRk ia zergatik, ia zer delitu leporatzen al zieten. Horrela hika mika egon ostean agertu zen Furgoneta bat *antidisturbios* modukoa eta bajatu ziren 4-5 ertzain modu erasokorrean kaskoak eta (uste dut, ez dut ondo gogoratzen) borrak ere zituztela eta MR albo batera eraman zuten gorputz miaketa egitera besteak giza hezia eginez eta AA eta MR banaturik. Azkenean NANA eman zieten etorritako ertzainetako bat euskalduna zena euskaraz aritu ostean azaltzen identifikatu behar zirela. Azkenik gogoratzen duena bada dena amaitu ostean hasierako ertzainetako batek euskaraz esan ziela MR eta AARI NANA eman ostean "Horrenbesterako al zen??" eta harriturik geratu zela gatazka osoa euskaraz artatuak izateko eskatu zutelako izan zelako han terrazan zeuden guztien ustetan eta ertzainetako bat euskalduna zela agerrian geratu zela, zentzugabekeria izan zen dena.

